



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

PRENTSA-OHARRA

BGP-K ABIAN JARRI DU ALDI BATERAKO TXARTELAK ALDEZ AURRETIK EROSTEKO ZERBITZUA

- **Azaroaren 23tik aurrera, asteazkena, erabiltzaileek lau egun lehenago erosi ahal izango dituzte txartelak, eta ez dute data igaro arte itxaron beharko, oraintsu arte gertatu den bezala**

Bilbon, 2016ko azaroaren 18an

Bizkaiko Garraio Partzuergoak (BGP) abian jarri du Barik txartelean txertatuta dauden aldi baterako txartelak aldeztetik erosteko zerbitzua. Azaroaren 23tik aurrera, asteazkena, Gazte Metro, Gazte Bizkaibus, Gazte Bilbobus eta Metro Bilbao hilekoa direlako txartelak erabiltzen dituzten pertsonak hasiera-data baino lau egun lehenago erosi ahal izango dituzte txartelak. Gainera, hasiera-data erosterakoan aukeratuko dute. Garraio-modu askotan garapen ugari egin beharra ekarri duen baliabide berri horri esker, BGPk bonu horiek erabiltzen dituztenen premiei erreparatu die; izan ere, hemendik aurrera Barik txartelean diru-txartel bat, aldi baterako txartel aktiboa eta aldi baterako erreserbako txartela eduki ahal izango dituzte.

Mekanika ez da aldatuko. Aldeztetik erosteko gaur egun Barik txartelak dituen aldi baterako txartelak kargatzeko puntuetan egin ahal izango da, hau da, metroan dauden saltzeko makinetan, Bilbobus eta Bizkaibuseko kabinetan, BGPren webgunean, kanpoko salmentaren bidez (kioskoak, merkataritza-establezimenduak, estankok eta abar) eta sakelako telefonoarekin Barik NFC izeneko aplikazioaren bitartez. Azken kasuan, aldeztetik erosi ahal izateko BARIK NFC aplikazioaren azken bertsioa eguneratu beharra dago, azaroaren 23tik aurrera ere deskargatu ahal izango dena, 00:00etatik aurrera. Une horretatik aurrera, ezin izango dira bertsio zaharrak erabili.

Erabiltzaileek erosteko aldeztetik egin ahal izango dute erosterako unean indarrean eta aktibo dagoen aldi baterako txartela eduki zein ez eduki. Hilabeteko txartel horietako bat, lau dira guztira, indarrean badute, aldeztetik erositako txartela erreserbako txarteltzat hartuko da hasiera-data heldu arte. Data hori erabiltzaileak aukeratu ahal izango du.

Era berean, aldi baterako txartela indarrean eta aktibo duen erabiltzaileak aukera izango du aldi baterako bonu bat erosteko baldin eta indarraldiak gainjartzen ez badira eta ezarritako epeen barruan badago. Aldeztetik erosten den txartela eta aktibo dagoena ez dute zertan berdinak izan, modu eta eremu kopuru desberdinekoak izan daitezke, besteak beste.

Kasu guztietan, Barik txartela kontsultatzean, bertan aktibo dauden txartelak eta



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

erreserbakoak ikusi ahal izango dira. Azken finean, Bizkaiko Garraio Partzuergoak beste aurrerapauso bat egin du Barik txartela eskuratzea eta erabiltzea errazagoa izan dadin. Gainera, zerbitzua errazte aldera egin du hori, eta besteak beste bat egingo du dagoeneko zeuden kutxazain, webgune edo sakelako telefonoarekin kargatzeko aukerarekin. Bestalde, zenbatekoak, datak, bidaiak, geratzen den saldoa eta beste gauza asko begiratu ahal izango ditu erabiltzaileak.